

Yemen, non haur gerrak traumatizatuak burdina gorituz markatzen diren



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Berrikitan Nazio Batuen Erakundeak (NBE) ohartarazia du Yemenen 13 milioi pertsona daudela goseak eta gerra laster ez baretzekotan egoerak ekar dezakeela "munduak 100 urteotan ezagutu duen goseterik larriena". Aldi berean, NBE bera ez da gai hasieran Yemeneko barne gatazka zen eta Saudi Arabiak nazioartekotu duen gerrari irtenbide diplomatikorik aurkitzeko, saudiei bezala Emirerri Arabiarrei armak saltzen dizkiegun europar eta iparramerikarren negozioren zorionik urratu gabe.

Mekkia Mahdi anderea mediku ari da Aslaman, Yemeneko ipar-ekialdean. *Der Spiegel*eko Christoph Reuter galdezka doakionean, doktorea aurkitu du salbatu nahian 11 urte eduki arren ume jaioberri baten pisua daukan mutiko bat: "Ez dut ulertzen munduan zer nolako zalaparta piztu duen Jamal Kaxoggiren hilketak, zeren eta bitarte horretan milioika haur yemendar sufritzen ari dira haietaz inoren kezka piztu barik". Aste horretan bertan egunero hil zaio haur bat egoera ikaragarri horretan.

Gatazken kontaktan iturri fidagarrietatik azaro erdian zioen 2015etik gaurdaino Yemengo gerran denetara 57.538-80.000 pertsona hil direla. Kopuru horretan kontatuta daude borroketan eroritako militar eta gudariez gain eraso militarrek jotako 6.592 zibil eta Saudi Arabian Yemenetik egindako erasoek eragindako 500.2017rako bakarrik Save the Children GKEaren arabera goseak hildako 50.000 haur eta kolerak hildako 2.310 pertsona ere bai. Baina azaroaren 21ean Save the Childrenek hildako haurren kopurua berrikusi eta 80.000taraino igo du, 30.000 gehiago. Hildakoez gain, 49.960 dira zaurituak eta 3.154.000 beren etxeetatik ihesi joanak, 24 milioi biztanle dauzkan Yemenen.

Yemen barruko gatazka armatuak 2004an hasi ziren arren, 2015ean bihurtu zen benetako gerra zibil nazioartekotua, huthi matxinoek Sanaa hiriburua berenganatu eta horiek kanpo-

ratutako Mansur Hadi lehendakariaren alde Saudi Arabiak esku hartu zuenean, atzetik lorrean zekartzala Emirerri Arabiarren, Senegal, Maroko, Sudan eta Qatar, AEBetako Academi gerra kontratista pribatuaz gain. Yemenen Ansar Al-Shariako islamistak ere indar hartzen ari zirela eta, hegazkinak eta tropak bidali zituzten gero Britainia Handiak, AEBek eta Frantziak. Saudiek eta bere sozioek, bestalde, salatzen dute huthi xiitek Irannen laguntza jasotzen dutela.

Ororen buru, geopolitikaren hari nahasiek konpongaitz bilakatzen dute Yemenen gerra zibil hasi zena. Xehetasun garrantzitsu bat: Nazio Batuen Erakundeak agintari legitimotzat dauka saudiek babestutako Mansur Hadi ren gobernua. Orain arte egindako negoziaketa saioek porrot egin dute. Azkenira, irailean Martin Griffiths NBEak jarritako bitartekariak Yemeneko emakumeen mobilizazioa aprobetxatuz antolatuta zuten Suitzako Geneban. Porrotarekin berriro: Hadik mesprezu egin zion Griffithsen eskaintzari -nahiz eta ordezkaritza zabalara bidali zuten Suitzara-, huthiak ez ziren azaldu NBEk ez zielako osorik etxeratzeko segurtasunik bermatzen... eta Yemenetik Genebaraino iritsitako emakumeak bazter batean eduki zituzten.

Itsas bazterreko basamortu yemendarrak zeukan landaredia urriari gerrak kalte handiak eragin dizkio. Batetik nekazaritzaren hondoratzea dago, hein batean bi aldeetako militar eta gudariek



ahalegin berezia egin dutelako aurkariak kontrolatutako eremuetako soroak hondatzeko. Eta bestetik, elikagaien %90 kanpotik ekarri behar duen Yemen blokeaturik dago lur, aire eta itsasoz.... Guztiaren ondorioz 24 milioi yemendarretatik 13 milioi gosea pasatzen dute eta hauetatik 6 milioi daude batera elikagairik gabe geratzeko arriskuan.

Urik eza da beste arazo larri bat. Berrez oso idorra den lurraldean, gurgil zoro baten moduan doaz beren eraginak metatuz klimaren berotzea, euri faltagatik akuiferoak agortzea eta lurpeko uren gazitzea. Gerran, gainera, urtegi eta biltegi asko suntsitu dituzte, ura urritzeaz gain garestituz. Nazioarteko erakundeek ez dute lortzen gabezia hori arintzerik: 20 milioi jendeak daukate segurtatu gabea bai ur garbia eta bai estolderia txukun bat.

Ez mediku, ez botika... norengana jo?

Asko aipatu da AEBek Yemeneko hondamendian daukaten erantzukizuna, baina europarrok ere bagenuke loa galtzeko motiborik: Europar Batasunako herrialdeek Saudi Arabiari eta Emirerri Arabiar Batuei 2015etik hona saldu dizkiete 76.062 milioi euroko balioa duten armak, *Middle East Eye* behatokiaren arabera. Kopuru horrek 55 aldiz biderkatzen du herrialdeok Nazio Batuen Yemenerako laguntza planari eman dioten dirutza.

Zenbait gobernu europarrek agindu duen arren saudientzako armen sal-



'Middle East Eye'-ren webgunetik hartutako argazkian, oinaze fisikoak edo psikikoak arindu nahian burdina gorituz markatutako haur ugarietako bat. Antzina petrikilo eta sendalariak erabilitako metodoak berpiztu dira Yemenen, osasun sistema guztia suntsitu dutenean. Argazkian nabarmen ikusten da erreduraren oinazea arindu nahian eskueran zeukaten krema bakarra ezarri diotela: hortzetarako pasta.

menta gelditzea, Alemania eta Danimarka dira hori egin duten bakarrak orain artean. Britainia Handiak, Frantziak eta Espainiak *business as usual* egiten darrate; esan nahi baita, armagintzako euskal konpainiek ere jarraitzen dutela Yemeneko gerra sugai berriz elikatzen, hala nola Sener eta SAPA konpainiek.

Herritarren egoera are gehiago okertzeko, Yemeneko txanponaren baliogabetze izugarriak *-rialak* 2015ean balio zuenaren laurdena balio du gaur- asko garestitu ditu janariak, erregaiak, ura eta botikak. Hein handi batean gertatu da Hadi presidentek *-saudiak* lagunduta- osorik bereganatzeko aitzakiarekin desegin zuelako Yemeneko Banku Zentrala. Gezurra dirudien arren, ordu arte banku publikoak bermatzen ziztuen 1,2 milioi funtzionarioen soldatak, esan nahi baita sei milioi jenderen bizi-

modua. Bankua zen herrialdea erabat hondoratu barik atxikitzen zuen azken erakundea. Eta lehertu zuten.


Orain Yemendik GKEetako kideek bezala kazetariak ohartarazten dute, herritarrek ez daukatela nora jo gaixo eta zaurituak artatzeko. *Middle East Eye*-ko korrespontsalak azaroaren 5ean kronika gordina bidali du Hodeidah hiritik: "Yemendar desesperatuek beren haur traumatizatuak burdina gorituz markatzen dituzte".

Hana Absi, 12 urte, etxera zetorren eskolatik urriaren 14an obus batek eztanda egin zionean inguruan. Hilotz odolduz inguratuta, konortea galdu zuen. Geroztik trauma psikologiko gogor baten mende bizi da. Aita maisuak ez du soldatarik kobratu azken bi urteotan; dirurik ez dute txukun jateko, are gutxiago urrutiko ospitaleren bateraino

bidaiatzeko. Ama Walaak, beste askok bezala, azken aukeratzat jo du haurra burdinaz markatzera, arabiar esaera zaharrari jarraituz: "Azken erremedioa, burdinaz markatzea".

"Emakume zaharrak -dio amak- goritzeraino berotu du burdina eta alabari ezarri dio sabel gainean. Anak gogor egin du negar eta niri errukia ematen zidan. Gero hortzetako krema ezarri dio oinazea arintzeko. (...) Ez dut uste markatzea tratamendu bat denik, gehiago da lehengo oinazeari bigarren gogorrago bat gaineratzea, hurrei pentsamendu beltzak kentzeko burutik".

Yemeneko medikuek ohartarazi dute antzinako metodoon arriskuez. Walaak ere arren eta arren eskatzen du haur traumatizatuak medikuek artatu ditzaitez. Baina ez berak eta beste askok ez daukate beste aukerarik eskueran. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

50 urtez elkarrekin